


41.4. Zentzurik behinena

SARRERA

Mundua ikusi, aditu, ukitu, dastatu eta usaindu izan dut beti. Bizitzak niretzat gordea zuen horri zer suma egon naiz, bost zentzumenak erne. Eta, halako batean, plaust! Bi bidelagun erori zaizkit lurrera. Zomorro batek erauzi dizkit errealitatea antzemateko nituen bi adiskide min: usaimena eta dastamena galdu ditut 2020an. Eta noraezean nabil, gazi-gozen itsasoan norabiderik gabe igeri, lurrinen uberari ezin segi.



AMAIERA

Berandu gabe itzuliko ahal dira bi lagunak nigana! Orain urtebete galde-tu balidate zein dudan zentzurik behinena, kostata aipatuko nukeen bietako bat. Seguraz ere, ikusmenaren boterea defendatuko nukeen sutsuki. Laztannen indarra laudatuko nukeen, apika. Baina, orain... Orain belarrien beharrik gabe ere entzuten dut nire buruan Printze Txikiaren hitz zuhurren oihartzuna: "funtsezkoa ikusezina da begiarentzat".

